DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Gizarte Ekintza | Adinekoak
Acción Social | Personas mayores

donostia kultura

# AZTARNAK

## IPUIN LABURREN III. LEHIAKETA

**+55** parte hartze aktiborako eta denbora librerako programak "**AZTARNAK" IPUIN LABURREN III. LEHIAKETA** antolatu du, literaturaren eta artearen eremuan adinekoen ikusgarritasuna sustatzeko.

## LEHIAKETAREN OINARRIAK ETA ARAUAK

**PARTE HARTZAILEAK:**
55 urtetik gorako pertsonak, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan jaio edo bizi direnak.

**Gaia:**
Zeinahi.

**IDAZLANAK:**
Lehiaketara aurkeztutako lanek jatorrizkoak eta argitaratugabeak izan behar dute, inoiz ere saritu gabeak eta argitaratzeko konpromezurik ez dutenak. Saridunak iragarri arte bete behar dira baldintza hauek.

**LANEN LUZERA ETA AURKEZPENA:**
Idazlanak 5 orrikoak izango dira, gehienez ere, euskaraz zein gaztelaniaz.
Lehiakide bakoitzak lan bat besterik ezingo du aurkeztu modalitate bakoitzean.
Lanak Word formatuan aurkeztuko dira, DIN A4 tamainako orrietan, Arial 12 letra tipoa erabilita eta 1,5eko lerroartea utzita. Testua alde bakarrean zenbakituta eta mekanografiatuta egongo da. (Baldintza hori nahitaez bete behar da)
Lanek izenburua jarrita izan behar dute, eta ezizenez sinatuta egongo dira.

**LANAK BIDALTZEA**
Idazlanak posta arruntaz edo elektronikoz aurkez daitezke, arau hauek oinarri:

**Posta arrunt bidez:**
- Hiru kopia bidaliko dira, gutun azal batean sartuta. Kanpoaldean, testu hau eta helbide hau idatziko dira, egilea identifikatzeko moduko xehetasunik eman gabe:

*"AZTARNAK" +55 IPUIN LABURREN III. LEHIAKETA (euskara) (gaztelania)*
Donostiako Udaleko Gizarte Zerbitzuak
Leire plaza, 7, behea, 20017 Donostia

- Gutun azalean, beste gutun azal itxi bat sartuko da. Bigarren horretan, datu hauek agertuko dira: egilearen izen-abizenak, ezizena, NANaren edo bestelako nortasun agiri baten kopia, posta helbidea, telefono zenbakia eta posta elektronikoko helbidea.

**Posta elektronikoz, helbide hau erabilita:**
aztarnak2019@gmail.com
- Mezu bat bidaliko da, hiru artxibo erantsita. Bata lehiaketara aurkezturiko idazlana bera izango da, eta izenburua eta ezizena besterik ez da agertuko. Beste artxibo batean, posta arruntez bidali beharrekoen atalean aipatzen den gutun azal itxian sartu beharrekoak jasoko dira (egilearen izen-

abizenak, ezizena, posta helbidea, telefono zenbakia eta posta elektronikoko helbidea). Hirugarren artxiboan, NANaren edo bestelako nortasun agiri baten kopia eskaneatua sartuko da.
- Anonimotasuna bermatzeko, posta elektronikoko helbidean ezingo dira agertu bidaltzailearen benetako izen-abizenak.
- Mezu elektronikoaren gaian honako hau idatziko da:
*"AZTARNAK" +55 IPUIN LABURREN III. LEHIAKETA (euskara) (gaztelania)*

**AURKEZTEKO EPEA**
Oinarri hauek argitaratzen direnetik 2019ko ekainaren 22ra arte, biak barne.

**MODALITATE BAKOITZEKO SARIAK (euskara eta gaztelania)**
Antologia batean agertuko dira aukeraturiko lanak.
+55 programak beretzat gordetzen du sarituriko lanak argitaratzeko eskubidea, saridunak iragarri eta 6 hilabeteko epean. Epe hori igarota, egileek nahierara erabil ditzakete lanak, baina hitzeman beharko dute hurrengo argitalpenetan ere aipatuko dutela saria.
- **Lehen saria:** diploma, oparia (zehazteko) eta argitalpenaren bost ale.
- **Hautatuak:** diploma eta argitalpenaren hiru ale.
- +55 programak beretzat gordetzen du lanen bertsio bat egiteko aukera, ahoz kontatzeko edo antzezteko.

**EPAIMAHAIA.**
Epaimahai batek hautatuko ditu obrak. Epaimahai hori literatur ospe aitortua duten hainbat pertsonak eta erakundeetako eta +55 programako ordezkariek osatuko dute.
- Epaimahaiak askatasun osoz eta kideen iritzien arabera jokatuko du aurkezturiko idazlanekin. Hark izendatuko ditu sariak, eta erabaki hori apelaezina izango da. Egoki baderitzo, eman gabe utz dezake sariren bat (edo guztiak).
- Epaimahaiaren erabakia telefonoz edo posta elektronikoz jakinaraziko zaie interesdunei.

**OINARRIAK ETA ARAUAK**
- Lehiaketara aurkezteak oinarri hauek guztiak onartzea dakar, eta, hala ez bada, lehiaketatik at geratuko da lehiakidea.
- +55ek beretzat gordetzen du lehiaketa garatzeko eta bururatzeko egoki jotzen dituen egintzak erabakitzeko ahalmena.
- Epaimahaikideek eta antolatzaileek ezin dute parte hartu lehiaketan.

**SARI BANAKETA**
Ekitaldi publiko instituzional batean banatuko dira sariak, 2019ko azaroaren amaiera baino lehen. Eguna, ordua eta lekua garaiz jakinaraziko zaizkie hautatuei, han egon ahal izan daitezen.
Ekitaldian bertan, irabazle suertatutako ipuinak edo horien laburpenak irakurriko dituzte, bai egileek eurek, bai izendatutako ordezkariek, bai antolatzaileek proposaturiko pertsonek.

*******

Ez da mezu trukerik izango lehiaketara aurkezturiko lanen egileekin, eta ez da emango lanen gaineko argibiderik ere.
Hautatu ez diren lanak eta horien gutun azalak suntsitu egingo dira epaimahaiak erabakia hartu ondoren.
Lehiaketaren oinarriez eta parte hartzeaz zalantzarik izanez gero, idatzi jramon_duarte@donostia.eus helbide elektronikora, edo deitu 943481915 (Joserra Duarte) telefonora.

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Gizarte Ekintza | Adinekoak
Acción Social | Personas mayores

donostia kultura

# AZTARNAK
## III CERTAMEN DE RELATO CORTO

**+55,** programa de participación activa y tiempo libre convoca "**AZTARNAK" III CERTAMEN DE RELATO CORTO**, como medio de fomentar la visibilidad de las personas mayores en el ámbito literario y artístico.

**BASES Y NORMAS DEL CERTAMEN.**

**PARTICIPANTES:**
Mayores de 55 años, nacidos o residentes en País Vasco o Navarra.

**TEMA:**
Libre.

**OBRAS:**
Concurrirán obras originales e inéditas, no premiadas anteriormente, ni sujetas a compromiso alguno de edición. Condiciones que habrán de cumplir hasta el momento del fallo.

**EXTENSIÓN Y PRESENTACIÓN DE LOS TRABAJOS:**
La extensión de las obras será de 5 folios como máximo, tanto en euskera como en castellano.
Sólo se podrá presentar una obra por autor en cada modalidad.
Los trabajos se presentarán con formato Word, tamaño hoja DIN A4, fuente "Arial", tamaño fuente 12, interlineado 1,5. El texto estará numerado y mecanografiado a 1 sola cara. (Recordamos que este requisito es de obligado cumplimiento)
Todas las obras estarán tituladas y firmadas con seudónimo.

**ENVIO DE LOS TRABAJOS**
Podrán presentarse por correo postal o electrónico cumpliendo las siguientes normas:

**Por correo postal.**
- Se enviarán 3 copias en un sobre. En el exterior del mismo se reseñará el siguiente texto y dirección, sin incluir detalles que identifiquen al autor:

*"AZTARNAK" III Certamen de relatos + 55 "(euskera) o (castellano)*
Servicios Sociales Ayuntamiento Donostia
Plaza de Leire 7, bajo 20017 Donostia

En el interior del sobre se introducirá otro sobre, también cerrado (**plica**), en el que figurará nombre y apellidos del autor, seudónimo utilizado, copia del DNI o documento de identidad correspondiente, dirección postal, teléfono de contacto y e-mail.

**Por correo electrónico a la siguiente dirección:**
aztarnak2019@gmail.com
- Se enviará un correo con tres archivos adjuntos. Uno con la obra que se presenta a concurso, titulada y firmada con seudónimo. Otro archivo con los mismos datos requeridos para la plica en el apartado de envío por correo postal (nombre y apellidos del autor, seudónimo utilizado, dirección postal, teléfono de contacto y mail) Un tercer archivo con copia escaneada del DNI o documento de identidad que corresponda.
- Para salvaguardar el anonimato, se utilizará una dirección de correo electrónico que difiera del nombre y apellidos reales del participante.

- En el asunto del correo electrónico deberá aparecer:
*“Aztarnak* III *Certamen de relatos +55” (euskera) o (castellano)*

**PLAZO DE PRESENTACIÓN.**
Desde la publicación de estas bases hasta el 22 de junio de 2019, inclusive.

**PREMIOS POR MODALIDAD (euskera y castellano)**
Las obras seleccionadas se publicarán en una antología conjunta.
+55 se reserva, en exclusiva, el derecho de edición de las obras premiadas durante el plazo de 6 meses a partir del momento de la publicación del fallo. Transcurrido dicho plazo, los autores dispondrán libremente de sus obras, pero comprometiéndose a consignar la distinción concedida en ediciones posteriores.
**- Primer premio:** diploma, obsequio a determinar y 5 ejemplares de la publicación.
- **Seleccionados:** diploma y 3 ejemplares de la publicación.
- +55 se reserva la posibilidad de llevar a cabo una versión de las obras para contar o representar teatralmente.

**JURADO.**
La selección de obras la resolverá un jurado compuesto por personas de reconocida solvencia literaria y representantes institucionales y de +55
- El jurado valorará las obras presentadas y actuará con total libertad y discrecionalidad. Discernirá sobre los premios y emitirá el fallo que será inapelable. Si lo considera conveniente podrá dejar todos o algunos premios desiertos.
- El fallo del jurado se comunicará a los interesados por teléfono o correo electrónico.

**BASES Y NORMAS.**
- La presentación al certamen supone la plena aceptación de las presentes bases y su incumplimiento será motivo de descalificación.
- +55 se reserva la facultad de dictar cuantos actos considere necesarios para el desarrollo y ejecución del certamen.
- Ni los miembros del jurado, ni organizadores, podrán participar en el certamen.

**ENTREGA DE PREMIOS.**
Se hará en un acto público institucional, antes de finales de noviembre de 2019. El día, hora y lugar se comunicará a los seleccionados con la suficiente antelación para facilitar su asistencia.
En el mismo acto, se podrán leer los relatos ganadores, o un resumen de los mismos, bien por los propios autores, bien por las personas en quien deleguen o proponga la organización.

*******

No se mantendrá correspondencia con los autores de las obras presentadas hasta el fallo del jurado, ni se dará información alguna sobre ellas.
Las obras no seleccionadas serán destruidas, así como sus correspondientes plicas, después del fallo del jurado.
Las posibles dudas sobre las bases y participación en el certamen podrán formularse a través del correo electrónico jramon_duarte@donostia.eus o en el teléfono:  943481915 (Joserra Duarte)